

# **PROIEKTUAREN DESKRIBAPENA**

Gure enpresak “Starring” izeneko produktua garatu du: zapore desberdinak sentiaraztea lortzen duen aparatu teknologikoa. Horrela, neurologiaren barrera biologikoa garaitzea eta zaporea sentipen kontrolagarria bihurtzea erdietsi dugu, bai zure osasuna ziurtatzeko bai zure gozamen pertsonalerako. Izan ere, produktu honi esker, edozein dastamen-esperientzian murgildu ahalko zara elikagai zehatz bat kontsumitzera murriztuta gelditu gabe.

Antzeko ekimenak aurrera eramateko saiakera anitz egin dira, baina arrakasta handirik lortu ez dutenak orain arte, teknologia atzerapen eta erabiltzeko zailtasunengatik nagusiki. Hortan datza zehazki gure balorea; proiektu honen egingarritasuna frogatzen duten ikerketetan oinarritu gara esperientzia guztiz berria ahalbidetuko duen produktu erabilterraza garatzeko.

Produktua bi atalez osatuta dago: bulkada neurologikoak aldaraziko dituen eta burmuinaren dastamen-zentroarekin kontaktuan egongo den gailua, forma desberdinak izan ahalko dituen. Bestalde, oinarria sentitu nahi diren zaporeak hautatzeko plataforma izango da, baita bildutako informazio neurologikoa prozesatu ondoren hau eraldatzeko seinalea emango duena ere.